

# Ttiki-ttaka


euskaldunon aldizkaria, 25. Zk.



# aunkibidea


## HERRIZ HERRI

Bastida	4
Biasteri	6
Lantziego	8
Lapuebla de Labarka	10
Oion	12
Viana	15



## ERREPORTAIAK

Gazteak eta euskara	17
Fracking ez Arabako Errioxa	18
Biodantza, euskara ikasteko lagungarri?	20
Eskolarteko pilota topaketak	22



## ELKARRIZKETA

Joxerra Olano	24
---------------	----

## DENBORAPASAK

Txistek, gurutzegrama, hizki zopa	28
-----------------------------------	----

## EUSKARA ZAINDUZ

Jokatu ala jolastu?	31
---------------------	----

## NON GOGOA, HAN ZANGOA

EKA eguna	32
-----------	----

Zenbakiak batzuetan adierazgarri izaten dira; oraingoan, Ttiki-Ttaka aldizkariak 25. aldiz gure eskualdeko etxe, euskaltegi, ikastola, taberna eta txokoetan lekua hartuko du urtero legez. Ziur asko ez da aldizkaririk erakargarriena, argazkirik politenak dituenak, iragarki gehien dituenak... baina gure eskualdean bakarra da euskara hutsean eskualdeko jendeak elkarlanean eskualdeko biztanleentzat egiten duena. Beraz, pozik egoteko motiboak baditugu, eta ea beste 25 ere badatozen etorkizunean.

Gaia aldatuz, aurtengo udaberrian bero boladarekin batera hauteskundeen algara izan dugu eskualdeko herri guztietan. Alderdi guztiak jo eta ke ibili dira promesak egin eta eskaintzen: “Datorren agintaldian hau egingo dut, beste zera eraiki...” Esandakoaren erdia gauzatuko balitz aldaketa nabarmenak ikusiko genituzke, baina “hitzak haizeak daroaz... la, la, la...”

Gurera etorri, euskararen prestigioa dela-eta hauteskundeetan aurkeztutako buruen hizkuntza gaitasunaren azterketa txikitxo bat eginez gero, nabarmena da aurkezten diren buru gehienek euskaraz ez dakitela. Badaude batzuk ikastola eta euskaltegiko ikasle ohiak direnez euskaraz badakitenak, eta horrela alkategai euskaldunen %ak gora egiten du. Herriz herri ikusita, bakoitzak jakingo du bere herrian nor den buru, zenbait kontu nabarmen azaleratzen dira. Alde batetik, eskualdeko politikan euskarak ez duela behar besteko lekurik hartu eta horrek zer

pentsa eman beharko liguke, hau da, hezkuntzan, aisian, kirolean, administrazioan... euskara normalizatzeko planak egiten ari bagara, politikagintzan euskara ez dago normalizatuta eta ez dago planik. Bestetik, ageri dira buru batzuk euskaraz dakitenak, aurretik esan bezala, ikastoletako ikasle ohiak, edo euskaltegian euskaldundutako baten bat. Azken finean 35 urte irakaskuntza euskaraz eskainita fruitu gutxi batzuk ageri dira. Buru horiek konpromiso serioa hartu beharko lukete dakitena erabiltzeko eta beren esparruan euskara normalizatzeko, euskara ez dadila izan urtean hiru momentu konkretutan erabiltzeko hizkuntza; dagoeneko bada zinegotzi bat eskualdean udal-plenoetan lehen hitzak beti euskaraz egiten dituenak.

Atal hau bukatzeko, Ttiki-Ttaka Elkarteak datorren ikasturterako dituen erronken artean bi azpimarratu nahiko genituzke: bata, eskualdean dugun aisialdiko eskaintzan euskararen presentzia handitzea, eta horretarako planak bultzatzea. Bestea, gazteen euskararen erabilera bultzatzea eta horretarako ere plana bultzatzea.

Ikusten den bezala, asmoak ez dira falta, ezta gogoia ere. Askotan egunerokotasunak ez digu egoeraren perspektiba hartzen uzten, baina ziur gaude gure hizkuntzaren alde nork bere esparruan egiten duen lana modu koordinatuan eta antolatuagoan garatzeko kapaz bagara, emaitzak ugariagoak izango direna.

bastida.....

## Bastida ikastolak badu bere irratia

**E**guneroko bizitzan, eskola eremuan eta beraien arteko harremanetan gure haurrek euskara hauta dezaten beste pausu bat eman dugu gure ikastolan: **Irrati-tailerra.**

### Bidea ibiliz egiten da

Izan ere, goizean jaiki orduko, edo gidatzen goazela, nori ez zaio gustatzen irratia entzutea? Irratiak gure gizartean garrantzi eta zabalkunde handia dauzka, adin guztietako jendeak entzuten du, mota askotako programak aurki ditzakegu komunikabide horietan. Irratia informazioa, iritzia, salaketa, entretenimendua, jolasa eta denbora-pasa ere bada. Eta, horrexegatik, estilo, gustu eta motibazio-iturri ezberdineko ikasleak erakartzeko ahala du.

Beraz, hori guztia kontuan harturik, Hizpro hizkuntza proiektuaren barruan, ikasleen artean ahozkoikasuna lantzeko komunikabide hau erabiltzea proposatu genuen iaz. Irratsaioetan irakurri eta hitz egiten baita; galdetu eta erantzun; azaldu, instrukzioak eman, deskribatu, kontatu, argudiatu; maila, adin eta gustuen arabera gai eta generoak aukeratu, egokitu eta negoziatu; banaka, binaka edota taldeka; ...

### Hizkuntza ere erabiliz onutzen da

Komunikabideen paper hezitzaileari helduz, irratia onurak, bereziki, hizkuntzen ikasketan (euskararenean, gurean) nabaritzen dira, eta zehazki ahozko adierazpenaren alorrean. Ikasturte honen hasieratik, ahozko hainbat testu landu dituzte irratitailerreko ikasleek: elkarrizketak, albisteak, horoskopoa, errezetak, musika, iragarkiak, ...; eta, ondorioz, hizkuntza-baliabide ezberdinak landu dituzte gure haurrek. Beti ere, euskaraz. Bidea ibiliz egiten den bezala, ahozkoikasuna landuz, hizkuntzaren erabilera ere sustatzen da-eta.

Hain zuzen ere, Curriculumari lotutakoez gain, ikasleen motibaziotik, beraien herrietako gorabeheretatik, kultur ekimenetatik eta abarretik sortutako edukiak har daitezke inspirazio iturri. Era berean, ikasketa ikasgeletatik atera eta gizartera ateratzeko ere balio du irratitailerrek. Izan ere, ikasleei, alde batetik, kazetari moduan, ingurunea ezagutzeko, eta, beste aldetik, soinu-testuak sortzeko aukera ematen die, muga bakarra sormena izanda.

Hori horrela, irratia-eskola bat kudeatzea, oso ekintza dibertigarria izateaz gain, ikasketa-prozesuan erabiltzeko tresna interesgarria izan daiteke.

## Irrati-failerra ikastolan

Gaur egun, informazioa eta komunikazioaren teknologia berrien garapenari esker, irrati-tailer edo eskola-irradi bat muntatzeak ez du diru handiko inbertsiorik eskatzen eta ez da zaila ikastetxean halakorik antolatzea. Hizkuntzaren irakaskuntzari lotutako hainbat irrati-proiektu aurki ditzakegu gertuko eta urrutiko eskoletan. Bastida ikastolan, ikasturte honetan abiatu dugu proiektua, eguerdiko eskolaz kanpoko jardueren barruan. Soinu mahai txiki bat, bi ordenagailu, handik eta hemendik jasotako hiru mikrofono eta behar adina kable bildu ondoren, hamahiru ikasleko taldetxoak martxan hasi zen azaroan.

Gure atal eta saiotoxoak irudikatu, eztabaidatu, adostu, idatzi, ahots gorako irakurketa entseatu, antzeztu, entzun, ... jolastu. Hauxe, amaitzeaz gauden ikasturte honetan Bastida ikastolan izan dugun esperientzia berri eta interesgarria. Araba Errioxa irradian ere izan ginen, Euskararen Eguneko irratsaio berezia zuzenean egiten. Eta ikasturtea amaitu baino lehen, beste irratsaio berezi bat antolatzen ari gara. Datorren ikasturteetarako erronka berriak ere baditugu esku artean. Internet bitartez egindako lana munduan zehar zabaltzea, esaterako. Baina horiek, aurreragorako utziko ditugu.



## biasteri.....

### Iraganaren Ahotsak

**B**adira sei bat urte Biasteriko saneamendu-sarea berritzeari ekin ziotela; Itxuraz, Alemanian propio egindako proiektua egin zen horretarako. Herriaren hegoaldean hasi ziren lanak, arazo gutxiago izango zituztelakoan. Izan ere, Biasteriren azpiazdeak gruyère gazta baten antza hartzen du, hau da, zulo edo deituriko bodega andana du. Horrek, jakina, sekulako buruhaustek ekartzen dizkie injineruei. Sarri, kobazuloak gainaldetik oso metro gutxitara egoten dira, eta edozein obrak behera-jotzeak eragin ditzake. Orain urte batzuk langile bat zendu zen lur eremu handia gainera erorita.

Orduko lanek, ordea, ez zuten bestelako arazorik eman, eta lehenengo faseak itxura eder eta sendoa eman zion herriari.

Ikasturte honetako hastapentan bigarren faseari ekin zioten. Lan korapilatsuagoa, hegoaldeetik gora bodega kopurua handiagoa baita. Biasteriko hiru kale nagusiak erabat altxatu (Paganos kalea, kale Nagusia eta Santa Garazi kalea), saneatu eta pabadura berria jartzeko helburua zuten. Bigarren fase honetan plazaraino doazen tartekak berritu dituzte. Arlauza handi eta harri txikiz egindako pabaturak garai batean herriak zuen itxura eman dio berriro; hala diote, bederen, bertako aiton-amonek.

Lan horietan, langile espezializatuez gain, arkeologoek ere parte hartu dute legeak hala eskatzen baitu. Bertakoek dioten bezala, edozein zulo eginez gero, beti agertzen da zerbait: dela zeramika puska, hezur edo bestelakorik; herriaren iraganaren lekuko isilak izango balira bezala.

Horixe gertatu da oraingoan ere. Mota guztietako aztarnak ageri dira, garai ezberdinetakoak: Burdin Arokoak, erromatarrek, Erdi Arokoak; zeramika, orduko etxebizitzaren arrastoak, hilobiak... urtetan lur azpian gordeak.





## Tfiki-ffaka 2015

Lurra zulatu ahala, azaldu dira aztarnok: San Joan elizaren inguruan hainbat hilobi ageri dira geruza eta sakonera ezberdinetan; zenbat eta sakonago, orduan eta zaharrago. Kale nagusiaren hasieran erromatarren garaiko zeramika ederra, Paganos kalean zeltiberriaren garaikoak eta Santa Garazi kaletik gora, zeramikaz gain, bi umeren hilobiak aurkitu dituzte ertzetan, etxebizitzaren teilatupetan; biak Burdin arokoak, zalantzarik gabe.

Berritze lanek herritarren jakinmina piztu dute, eta, maiz, sakeleko telefonoa eskuan, eurak izan dira ateratako argazkiak zabaldu dituztenak. Neurri batean harro...

Harro egoteko modukoa da, jaio zaren tokiak urte askotako historia duela jakinda; ia etengabe izan dela bizitza zurean. Itxuraz, **La Hoya** herrixkatik etorritakoak izan ziren lehenak muino honetan.

Lurperatutako pertsona horien hondakinak ikustean, ia ohartu gabe, horien gainean jarduten dugu gure baitan: “Zein ote beren izenak, lanbideak, gaixotasunak, lorpenak, pozak eta tristurak... heriotza... Iraganaren lekuko isilak...”

Arabako Errioxa beti izan da erakargarria arkeologoentzat. Fernández Medrano, Eguren, Aranzadi eta Barandiaran, besteak beste, inguru hauetan ibili ziren sekulako altxorak zeudela jakinda. Horrela, 50. hamarkadan-edo, oso agerian zeuden aztarnak aztertzeari ekin zieten, trikuharriei, kasu. Egun ere, Javier Fernández Eraso eta Joxean Mujika (UPVko irakasleak), dabiltza aspaldi aintzindari horiek hasitako lana osatzen; eta, oraindik ere, datu txundigarriak ateratzen jarraitzen dute.

Agur esateko (bada garaia-eta), Joxe Miguel Barandiaranek orain urte dezente hitzaldi batean esandakoa baino hoberik ez zait bururatzen: “Herri bat garen aldetik, gure buruari laguntzeko geure iragan historiko-kulturala ulertu beharrean gaude; zein den gure jatorria, zein izan diren gure esperientzia eta mendeetan jasotako elementuak. Izan ere, sustraietatik iritsi zaigun bideak gure etorkizuna argitzen eta kudeatzen irakatsiko digu”.



## Lantziego.....

### Hamar Urte

**H**amar urte euskaraz jolasten, hamar urte euskaraz dantzatzen, hamar urte euskaraz abesten, hamar urte euskaraz amesten...

Asko eta asko izan dira hamar urte hauetan euskararen alde emandako pausoak, izan ere, duela hamar urte Argi Oilar Kultur Elkarteak sortu zen Lantziego euskalduntzearen helburuarekin; horretarako ahalik eta alor gehienetan euskararen presentzia ahalbidetzen saiatu da.



Hasteko, duela hamar urteko egoerari erreparatzen badiogu, eskualde osoan gertatzen zen bezala, euskara arlo akademikoari erabat lotuta zegoen; Lantziegoko ikastolan euskara ikasten zen, patioan ere euskaraz egiten zen, baita ikastolak antolatutako ekintzetan ere; baina atea zeharkatu eta euskara ikastolan itxita geratzen zen. Beraz, elkartearen hasierako helburua hori ekiditea izan zen, hau da, euskara herriko bizitzan ahalik eta gehien zabaltzea. Ordurako Arabar

Errioxa mailan Ttiki-ttaka edo beste zenbait elkarte bazeuden ere, norabide horretan indarra beharrezkoa zela somatzen zen.

Lehen aipatu bezala, arlo ezberdinetara euskara zabaltzea izan da urte hauetako helburua; horietako bat, umeen aisialdia. Modu honetan herriko haurrek ikusi dute euskara ez dela eskolako tresna hutsa eta altxorra bilatzea euskaraz egin dezaketela, baita filmak ikustea edota jolastea ere.

Aisialdiarekin jarraituz, jaiak oso garrantzitsuak dira herri bateko bizitzan eta hauetan ere Argi Oilar elkarteak bere ekarpena egin nahi izan du hauek euskaldunduz. Esate baterako, jaietako programazioan haur, gazte zein helduei herri kirolak euskaraz egiteko aukera eskainiz. Gainera, betiko kankak herritarren ahoetatik euskaraz entzun izan dira, kontzertuak euskaraz, bingoa euskaraz, jolasak euskaraz... Modu honetan instituzioek normalean eskaintzen ez dutena ahalbidetu izan da.

Honekin batera, Argi Oilarren egutegian urteroko hitzordurik garrantzitsuenetako bat bertso afaria izan da; bertan hizkuntza ez ezik, kultur ondare hori ere gerturatu nahi izan da; Lantziegoko herritarrek honetaz gozatu ahal izateko. Punta-puntako bertsolariak gerturatu dira, besteak beste, Aitor Sarriegi, Oihane Enbeita, Julen Zelaieta, Manex Agirre... Urrutira joan gabe, Txandriotarrak ere honen partaide izan dira. Gainera, aipatu beharra dago afalosteko pilota partida tradizio bihurtu dela.

Ez hori bakarrik, herriko nekazariak "inausi", "hartzidura" edo "ardo-ondur" gisako hitzak ikasteko aukera izan dute; Argi Oilar elkarteak horiek eta beste asko biltzen dituen hiztegi bat sortu zuen eta. Honen beharra somatu zen, horiek ez baitira eskolan ikasten diren hitzak, eta kontuan izanik nekazaritza herriko sektorerik garrantzitsuenetako delarik nekazal hiztegi hau sortu zuten. Modu honetan pauso txiki bat eman zen sektore hau ere euskalduntzeko. Bertan, arlo ezberdinetako hitzak biduta zeuden, Lantziegon, batez ere, erabiltzen direnak: olio errotari dagozkionak, upategi, mahasti, baratze, zein eguraldiaren inguruko hitzak.



## Txiki-txaka 2015

Ezin dira aipatu burututako ekintza guztiak; gai ezberdinen inguruko hitzaldiak (mitologia, euskararen historia, bidaia ezberdinen ingurukoak), argazki erakusketak, antzerki, ipiun kontalari, Agate Deuna...

Hauetaz gain, paisaia linguistikoaren euskalduntzearen alde egindakoak ere nabarmendu beharrekoak dira. Udaletxeak, zein beste instituzio batzuek herriko errealitateari erreparatu gabe, kartel zein seinaleak erdara hutsean jartzen zituzten. Mota ezberdinetako eskaerak (gutuna, sinadura bilketa...) egin ostean, zenbait aldatu dituzte. Oraindik erderako batzuk geratzen badira ere, berriak behintzat elebidunak izaten dira. Beraz, oraindik lan egin beharra dago norabide honetan.

Ikusi bezala, lerro hauetan hamar urteko ibilbidea laburbilduta agertzen da; horrela ikusita oso polita eta erraza izan dela dirudien arren, euskararen alde lan egiten duen orok jakingo duen bezala, ez da horrela izan; gogor lan egin eta gero zenbaitetan jendearen erantzuna espero dena ez delako, aurreikusitakoak ez dira beti betetzen, instituzioak ez daude beti alde...



Hala ere, pauso txiki hauek eman dira Lantziengo euskaldunago bat ikusteko asmoarekin; eta, zorionez, honek ondorio txiki batzuk izan ditu; esan dezakegu orain euskarak duela hamar urte baino presentzia handiagoa duela. Horregatik, eskertzeko modukoa da ibilbidean lagundu dutenek egindakoa. Dena den, oraindik lan handia dago egiteke; horregatik, zailtasunak zailtasun edo trabak traba norabide honetan lan egiten jarraitzeko asmoa dago Argi Oilar elkartearen aldetik; eta espero dute datozen hamar urteetan, euskaraz kantatzea, euskaraz dantzatzea, euskaraz amestea eta euskaraz bizitzea.



## Lapuebla de Labarka.....

### Euskara Merkataritzan Errotzen Ari Da

Lapuebla 900 biztanle inguruko herria dugu, gure eskualdean biztanleak kontuan hartuta herri ertaina. Bertan 4 taberna, 3 denda eta botika ditugu. Ikastola herrian egonda, dagoeneko belaunaldi asko pasatu dira bertatik, batzuek ikasketak lehenago bukatu eta besteek ikasten jarraitu dutelarik, horrela 35 urte pasa dira ikastola sortu zenetik. Hizkuntza ez da matematika, horregatik, Assa Ikastolatik igaro diren Lapueblako ikasleek euskararekin harreman ezberdinak dituzte. Batzuek ikastola utzi bezain pronto, euskara albo batera utzi zuten. Beste batzuk saiatu dira eusten eta nahiz eta hitz egiteko freskotasunik ez izan egun, ulertzeko gai dira, eta “noizbehinka” animatzen dira hitz egitera. Bestalde, badago beste talde bat euskara erabiltzen jarraitu duena, eta gehiago edo gutxiago hitz egiteko gaitasunari eutsi dio.



Aurretik aipatutako egoeraren ondorioz, albiste on baten berri zabaldu nahiko genuke Lapueblatik, izan ere, bada denboratxo bat gure herriko botikan euskaraz erosteko aukera duguna. Bada, orain Erretiratuen Tabernan ere bertako arduraduna euskalduna dugu, eta tabernan euskaraz eskatzeko eta hitz egiteko aukera dugu.

Pixkanaka, nahi baino astiroago, baina aurrera goaz. Zenbat eta esparru gehiagotan aukera izan hitz egiteko, nahi duenak errazago hitz egingo du. Horregatik, oso garrantzitsua da ikasleen eta ikasle ohien euskararekiko jarrera positiboa izatea, etorkizunean publikoaren aurreko lana izanik elementu garrantzitsuak izan daitezkeelako euskararen normalizazioan.

Beraz, jakin ezazue Lapueblara etortzen bazarete eta botikara edo Erretiratuen tabernara joaten bazarete, Carla eta Mirenekin euskaraz hitz egiteko aukera izango duzuela; ez galdu aukera.






**A**urten, Assa ikastolako DBH1eko ikasleek ONCeren lehiaketa irabazi dute Araban San Viator ikastetxearekin batera. Komunikazio Tailerrak ikasgaien egin zuten lana, euskaraz idatzita.

Bigarren Hezkuntzako kategorian (C) egunkari-orrialde bat aurkeztu zuten. Emandako gaia zera zen: *Gizarte Ekonomia eta pertsonengan pentsatzen duten enpresak*. Proiektuan 4 hitzgako hauek jaso behar zituzten: **ONCE, berdintasuna, lana, desgaitasuna (aniztasun funtzionala)**. Beraz, aniztasun funtzionala duten pertsonak berdintasunean bizi daitezen eta lan merkatuan sartzeko aukera normalizatua izan dezaten, ikasleek 3 albiste ezberdin asmatu zituzten.

Martxoan aurkeztu zuten lana eta maiatzean jakinarazi diete Arabako txapeldunak direla. Orain erkidegoko lehiaketan parte hartuko dute. **Zorionak!!!**



## Araba Euskarazi Eutsiko Sanbizenetarrok

Lagun agurgarri hori:

**S**an Bizente ikastolako kideak gaituzue, hots, guraso, irakasle, ikasle, baita kooperatiba honen bazkide sortzaileak ere. Gure historiaren protagonistak garen aldetik, gure ikastola Arabako Errioxan euskararen berreskuratze prozesuan, zutabe izan dela aldarrikatu nahiko genuke, eta, hartara, Araba Euskaraz antolatzeak aukera ezin hobea eskaini liezaguke.



Gure ikastola, 1978an sortua, eskualdeko lehena izan zen. Hastapenak latzak izan ziren, eta familia sortzaileek nahi baino gehiagotan gorriak ikusi zituzten, baina, hala ere, ez zuten amore eman eta aukeratutako aurrerabidean segi zuten. Guraso horien nahia zen haien seme-alabek euskaraz ikastea. Helburu hura xumea bezain zaila zen garai haietan, baina, agian konturatu gabe, askoz gehiago lortu zuten eskualdeko euskararen berreskuratze bidea ireki baitzuten.

Lehenengo promozioan sei ikaslek baino ez zuten amaitu, beharbada Oiongo lehenengo euskaldun berriak, baina zorionez ez dira bakarrak izan. Hamarkada hauetan gure eraikineko ate gorritik ehunka haur hiztun erdaldun izaki sartu dira eta euskaldun irten. Egun, 260 ikasle

ditugu 0 urtetik 16 urte bitartekoak. Oion, Labraza eta Gorrebustoko ikasleaz gain, eskualdeko hainbat herritatik ere jasotzen ditugu, hala nola, Ekora, Kripan eta Moredatik; Nafarroako Viana eta Bargotatik; eta Errioxako Logroñotik. Hauxe litzateke, beraz, ikastolaren *jarduera aipagarriena*: inguruko haurrak euskaraz hezteak.

San Bizente ikastolak, aldi berean, euskal kultura eta folkloreak esparruan herritar guztientzat prestatzen ditu ekintza batzuk, adibidez, Olentzero, Prudentzio deunaren danborrada eta Azoka ekologikoa. Ekintza horiek guztiak, didaktikoak izateaz gain, lagundu egiten dute ikastola eta herriaren arteko harremana sendotzen. Beraz, ikastola euskal kulturaren suspertzailea izatea *aipagarria* litzateke.

Horrez gain, *aipagarria* ere bada Oiongo ikastola, barrura ez ezik, herrira eta eskualdera ere zabandu dela. Kasu batzuetan hainbat elkarteren hazia izan da, esate baterako, *San Prudentzio Egunsentia* abesbatza, *Txandrio* bertso eskola, edo *Oiana* triki taldea.

Hori guztia dela eta, gure ustez, begien bistan dago Oiongo ikastolako ibilbidea euskarari lotuta dagoela eta horrela jarraitu beharko lukeela, izan ere, badago urratzeko bidea oraindik Arabako Errioxan. Sanbizenetarrok kementsu jarraitzen badugu ere, egungo egoerak pittin bat apaldu gaitu, baina **Araba Euskarazek** eman diezagukuen bultzadak indarberrituko gaitzake.

Gure nahiak ez daitezela eror zulorik gabeko zakuan, adeitasunez agurtzen zaituztegu.

**San Bizente Ikastola**

## elkarrizketa

**O**so gutxi falta da Araba Euskarazerako, lana eta ilusio asko dakarren jai bat, zer espero duzue edizio honetaz?

Aurreko edizio guztietan bezala, Arabako ikastola guztien jaia izan dadila espero dugu, baita Araba eta euskara maite duten pertsona guztiena ere. Jendetsua izatea nahi dugu ilusioz betetako egitaraua prestatu dugulako. Jai alai, dibertigarri eta euskalduna handi eta txikiarentzat. Araba Euskaraz famili artean igarotzeko jaia izan da beti eta horrela jarraitzea nahi dugu.

**Berriz ere Arabako Errioxako ikastola batek antolatzen du Araba Euskaraz... hain premi handia dago gura zonalde honetan, beste batzuetan baina handiagoa?**

Zalantzarik gabe.

Gasteizen euskaraz bizitzea erraza ez bada, imajina dezakezue nolako den gure eguneroko borroka Arabako Errioxan. Horregatik, babes gehiago behar dugu, gure lana zailagoa delako. Landa eremu batean bizi gara, herri txikietan eta Errioxako muga ondoan. Kontzientziazioa txikiagoa da, bi errealitate ezberdin artean bizi baikara.

**Zertarako erabiliko duzue bildutako dirua?**

Gure ikastolak ibilbide bat dauka, eta oztopo asko gainditzen ari gara. Gure "eraikin gorriak" 70 urte ditu, Errepublikara garaiko eskola zaharra da, eta eraberritzeko lan asko behar ditu. Alde batetik, jarraitzen dugu jangela propiorik gabe, 2010ean hasitako obrak 2009ko Araba Euskarazi esker oraindik ere bukatu gabe ditugulako. Bestalde, ditxosozko krisia dela eta, era askotako dirulaguntzak gutxitu egin dira eta eguneroko funtzionamendu eta oionarrizko mantenurako ere behar handiak ditugu.

**Aurtengo edizioko leloa 'Piztu euskara' da, zer esan nahi du esaldi horrek?**

Euskera gure altxorra da, berrezkuratzen ari garen altxorra. Gero eta jende gehiagok daki euskaraz baina, hala eta ere, erabilera motelago doa. Ez dakigu lotsagatik edo erosotasunagatik edo ihes egiten digun beste arrazoiengatik. Eta horixe da, hain zuzen ere, gure helburua eta gure erronka: euskeraren bonbila piztea argitu dadin eta erabiltzen has gaitezen.

**Araba Euskaraz bezalako jai bat antolatzea benetako erronka da, guztien inplikazioa eskatzen du, irakasle, ikasle eta gurasoena. Lortzen ari zarete?**

Esan behar dugu ohituta gaudela hau baita gure bostgarren Araba Euskaraz (1984, 1997, 2003, 2009). Jende asko inplikatu da antolakuntzan lehenengo ediziotik eta belaunaldi erreleboa edo gertatzen ari dela esango genuke. Ikastola sortu zuten gurasoek aholkuak ematen dituzte. Lehenengo edizioetan ikasleak izan zirenak orain guraso dira, eta lan piloa egiten dute. Oraingo ikasleak ere giro honetan murgitzen hasi dira. Hala ere, gure ikastola txikia denez, kanpoko laguntza behar dugu. Gure kalkuluen arabera 700 bat lagun behar dira jaiaren egunean lan egiteko. Oraindik ez ditugu postu guztiak bete (segurtasuna, trafikoa, garbiketa, txosnak) baina lortuko dugu.

**Zergatik erabaki duzue Gasteizen egitea?**

Erabakia Ikastolen Elkartearen hartu genuen. Erabaki zaila izan da, noski, baina asmatzekotan hartu dugu. Pena ematen digu Oionen ez egitea, nola ez, baina ulertzen dugu Gasteizek erraztasun gehiago ematen dituela ahalik eta jende gehien erakartzeko.



## Tiki-taka 2015

### Zein berrikuntza aipatuko zenituzkete?

Araba Euskaraz ez da Gasteizen egin 2006tik, beraz bertan izate hutsa bada gauza berria Arabar askorentzat, eta, gainera, ez egitea ikastola antolatzailearen herrian ere erabat berria da hegoaldeko ikastolentzat. Beste aldetik, zirkuitoa ez da itxia (borobil bat), ibilaldi luze bat baizik: Prado parketik Armentiaraino eta buelta toki beretik.

Publikoari begira, guneak ez dira tematikoak, hau da, gune bat gazteentzat, beste bat txikientzat... Jai globala antolatu dugu eta gune guztiek adin tarte guztientzako ekitaldiak izango dituzte.

Azkenik, oso garrantzitsua iruditzen zaizkigu ERRONKA proiektua, Ikastolen Elkartearen

eskutik, eta zientziarekin lotutako jarduerak, **Elhuyar** fundazioaren eskutik, gazte guztiek aisialdi osasuntsua izan dezaten.

### Beste zer edo ozer aipatu nahi duzue?

Bai. Jon eta Arantxa Ruiz-Carrillo Idarreta izango dira Araba Euskarazeko zirkuitoari hasiera emango diotenak zinta moztan. Jon eta Arantxa gure ikastolako Ane Idarreta irakaslea zenaren seme-alabak dira. Bi gazte hauek amak ereinitakoari jarraituz, ikastola eta euskararen alde dihardute.

### ANE ANDEREÑO: AGUR ETA OHORE

Ane Idarreta Galarraga Donostian jaio zen 1961ean. Oinarrizko ikasketak Santo Tomas ikastolan burutu zituen, eta gero Magisteritza ikasketak bukatu zituen bere jaioterrian bertan. Hogeita bi urterekin etorri zen Oionera, Idoia Ibarburu bere lagunarekin, San Bizente Ikastolan andereño izateko. Lan horretan pozik eta arduratsu aritu zen, beti euskararen alde, Oion herrira bere urterik emankorrenak eskainiz. Anek bere familia sortu zuen Pedro Ruiz-Carrilloarekin eta bi seme-alaba izan zituzten, Jon eta Arantxa. Gure ikastolako irribarrerik gozoena 2010eko urtarrilaren 9an joanagatik, maite genuen guztiok gogoan dugu egunero.





**E**rentzun Ikastolan eskola jasangarria izateko ekimenak bultzatzen ari gara aurten. Ikasturteari hasiera eman eta gure ikastola “ESenRED- Eskola jasangarrien sarea” proiektuan sartu zen, inguruaren eta naturaren aldeko ekimenen urteko plangintza sortuz eta horiek aurrera eramanez.

Eskola jasangarria, eskola komunitate osoaren (irakasleria, ikasleria, familiak eta gainontzeko langileen) jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzen duena da.

Proiektuaren helburua ikastetxearen jasangarritasunerako baloreak sustatzea da: gizarte baloreak, osasun baloreak, ekologikoak, ekonomikoak, kulturalak, giza eskubidezkoak eta berdintasunerako baloreak, besteak beste.

Emandako lehen urratsa gure ikastolan berezko ingurumen politika sortzea izan zen. Horrela, ikastolan eta gure inguruan ingurumenaren zaintzaren aldeko ekimenak garatu ditugu: jolastokia eta Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako azken mailara bitarteko gela guztietan hondakinen jasotze selektiboa egiteko ontzi berdinak jarri, birziklapenaren aldeko kanpainak aurrera eraman, familiak informatu, kartelak jarri, ikastaro eta tailer desberdinak burutu, informazio panelak landu eta arrakastatsuen izan den ekimena martxan jarri: “Garbiketa Team”.

Astean behin Lehen Hezkuntzako talde bati dagokio “Garbiketa Team”-eko kidea izatea. Ikasleek ikastola barruko eta kanpoko txoko desberdinak miatu eta aurkitzen duten zakarra jaso eta dagokion ontzian jartzeko ardura dute. Bestalde zaborra behar den tokian botatzen eta laguntzen diete ikaskideei.

Ikasleek gogotsu hartu dute inizatiba hau eta zintzotasunez betetzen dute euren eginbeharra, izan ere, ikastola eta natura guztion altxorra da. Nola zainduko dugu natura gertukoa zaintzen ez badugu?

Ekintza hauetaz gain kompetentzietan oinarritutako arlo desberdinetako bateratze lanak ere egiten ditugu jasangarritasuna eta ingurugiroarekiko errespetua lantzeko. “Vianako parkeak”, “Saski bete barazki” eta “Herri argia, herri garbia”, alegia. Bateratze lanen xedea oinarritzko kompetentziak derrigorrezko eskolaren ohiko curriculumean sartzea da. Era honetan, gure baratza martxan jartzeari ekin diogu aurten.

Aurrena urteko sasoi honetan landatzen denaren inguruko informazioa bilatu, landatzeko proposamena prestatu, lursaila neurtu eta aleak lortu ditugu. Planifikazioa egin ostean, lan guzti hori errealitatera eramatea izan da azkeneko jardura. Gurasoen laguntzaz lursail txiki bat prestatu dugu eta astero ureztatzeaz arduratzen dira ikasleak. Gure saskia barazkiz betetzeko irrikaz gaude!

## Irakurgaua: Irakurketa Eta Gauaren Arteko Nahasketa Liluragarria

**A**rratsaldeko zortziak dira, ostirala da, ez dago inor ikastolan, ilundu du aspalditik. Halako batean, argi batzuk ikusten dira sarreran. Kotxeak datoz; kotxeetatik haurrak ateratzen hasten dira. Irribarrea ikusten da haien aurpegietan, emozioa. Motxilak ateratzen dituzte, lozakuak... eta mozorroak! Handik minutu batzuetara sorginak eta aztiak egin dira ikastolako jaun eta jabe eta pasabide hutsetatik ari dira korrika egiten. Zer gertatzen ari da? Sorgindu al zaigu ikastola?

Gaueko hamaikak dira orain. Gaua da. Sorgin eta azti guztiak lozaketan sartuta daude isil-isilik. Esku artean liburuak dituzte; irakurtzen ari dira! Argitu da misterioa: Erentzun Ikastolan Irakurgaua ospatzen ari dira, Irakurketaren gaua.

Gaua eta liburuak ongi konpontzen dira elkarrekin. Gaua heltzen denean, gurasoek irakurtzen dizkigute ipuinak. Gaua izaten da askok irakurtzeko duten momentu bakarra. Hori dela eta, Europako hainbat eskoletan irakurketa gauak antolatzen dituzte, irakurzaletasuna era zirrargarri batez bultzatzeko asmoz.

Suitzatik ekarri zuen ideia Erentzun Ikastolako andereño batek eta aurrera eraman duen Nafarroako lehenengo ikastetxea izan da.

Idea sinplea da: irakurketa eta literatura ardatz duen gau bat pasatzea ikastolan, pijama eta guzti!

Irakurketaren gaua girotzeko gai bat aukeratu zen: magia. Hortaz, parte hartu zuten ikasleek horrekin lotutako mozorro bat ekarri zuten, baita magia edo misterioarekin lotutako liburuak ere. Afaldu ondoren, egitarauarekin hasi ginen. Lehenengo talde txikitant antolatuta magia ikuskizun txiki bat prestatu zuten partaideek; gero, oka joko literarioarekin primeran pasa zuten liburuen inguruko galderak erantzuten eta froga desberdinak burutzen. Azkenik, ohera sartzeko garaia heldu zen. Linternak piztu, liburuak atera eta hor ibili ziren gustura baino gusturago gure aztiak presarik gabe irakurtzen loak harrapatu arte...

Gaueko hamabiak dira. Larunbata da orain. Ilundu du aspaldi; ez da ezer entzuten ikastolan. Kanpoan euria ari du, barruan goxogoxo, ikasle talde bat lo dago... ametsetan. Batzuk ari dira *Harry Potter*ren erratzean hegan egiten, beste batzuk Kikaren dragoiarekin hizketan, Nurren Magia kanpamentuan trukuak ikasten edo, zergatik ez, *Matildak* egin zuen moduan bere botere telekinesikoen irakaslea izutzen... eguna argitu arte... hurrengo liburua irakurri arte.

### IRAKURKETA GAUA

(Harry Potterren musika)

Hemen gaude ikastolan  
sorginak eta aztiak.

Hemen gaude ikastolan  
liburua eskuan! (Bis)


Irakurri ta irakurri  
egin ezazu irri.

Irakurri ta irakurri  
kaixo esan magiari! (Bis)



**Gauez irakurtzeko liburuak:** Gaueko ipuinak: irakurtzeak ez nau beldurtzen – Batzuk Munstro bat edukiontzian - Maribel Aiertza • Oilo-ipurdia jartzeko moduko ipuinak - Antton Dueso • Ada Goth eta sagu mamua - Chris Riddle • Zonbi mutanteen gaua - Peter Walker • Rita eta alkimistaren ametsa - Mikel Valverde • Sorginak - Roahd Dahl

**E**uskarari dagokionez, datozen urteetako erronka handietako bat da euskararen erabilera indartzea; bereziki, haur eta gazteen erabilera, haiengan baitago euskararen ezagutzarik altuena. Arrazoi horrek baina, batzutan, inertziaz jokatzera bultzatzen gaitu; izan ere, haur eta gazteen esku utzi ohi dugu guztion ardura izan beharko lukeena, alegia, euskararen normalizazioa.



Ardura horri jarraiki, ume eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragiteko, eta ondorioz euskararen erabileran, zuzeneko lau eragile ditugu: gurasoak, irakasleak, eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileak eta gazteak. Eragile horiek guztiek badute zeresana eta zeregina euskararen erabilerari dagokionez. Pentsa dezagun une batez zer nolako emaitzak eta onurak lortuko lituzkeen gure gizarteak lehen aipatutako lau bide horietatik zentzu berean eragingo bagenu. Oraingoan baina gazteen bitartez, edo hobe esanda, gazteek

beraiek gazteen euskararen erabileran eragiteko proiektua aurkeztu nahi dugu: Arabako Errioxako Gazteen Euskara Batzordea.

Aipatu berri dugun Batzordea, funtsean, 16-18 urte bitarteko gazteekin osatzea aurreikusten dugu (oro har, DBH4 eta Batxilergoko ikasketak burutzen ariko direnak). Gazte horien parte-hartzea borondatezkoa izango da eta bi dinamizatzailer egotea aurreikusten dugu Gazteen Euskara Batzordeak egiten dituen hausnarketak bideratzeko, eta planak edota ekintzak definitzen zein abian jartzen laguntzeko. Prozesu honetan zehar EBETE hizkuntza-zerbitzuak enpresa izango dugu aholkulari; izan ere, gazteen euskara batzordeak sortzen eta gidatzen esperientzia zabala du. Nolanahi ere, gazteek proiektu honetan garrantzia berezia izango dute.

Proiektu honen bitartez gure eskualdeko gazteei aukera emango diegu gazteen euskararen erabileran zuzenean eragiteko. Hau da, haiek izan daitezten prozesuaren parte (diseinatzaile eta gidari) ume eta gazteen hizkuntza-ohiturak aldatzeko; azken batean, euskararen erabileran eragiteko subjektu aktibo izateko aukera eskaini.

Gazteen euskara Batzordearen lana errazteko bost punturen arabera eragitea proposatuko diegu gazteei: hizkuntza-gaitasuna (hizkera informala), jarrerak (euskara gehiago erabiltzeko ahalegina egitea), erreferenteak eta kontsumo eskaintza, hizkuntza-ohiturak eta hizkuntza-arauak, eta euskara erakargarria izatea (bizipenak eta euskara balio indartsuekin lotzea).

Esperientzia hau abian da Euskal Herriko beste hainbat herritan, adibidez, Bergaran eta Elgoibarren. Bertan egiten dituzten ekintzen adibideak, honakoak: “piropo, birao eta animoen lehiaketa”, “erronka: etzetx astebete euskara mantendu!”, “gazteak haurren erreferente”, “musika talde hoberena aukeratu” eta “asteburu pasa”. Gurean Gazteen Euskara Batzordea osatzeko lanei 2015eko udazkenean hasiera emango diegu. Beraz, Arabako Errioxako gaztea bazara eta euskararen erabileran eragin nahi baduzu, udazkenetik aurrera izango duzu beste aukera bat. Ohiko bideetatik zabalduko dugu proiektu honen berri: [www.euskaramaitedut.eus](http://www.euskaramaitedut.eus).

## FRACKING EZ ARABAKO ERRIOXA Urtebete Inguru Lanean

Esan liteke Lezako bi ahizpak fracking-aren inguruko liburu bat irakurri eta herrian bilera bat antolatu zutenean sortu zela *Fracking ez Arabako Errioxa* taldea, orain urtebete gutxi gorabehera. Hasiara batean *Fracking ez Leza* izenarekin osatu zen, baina urtebeteko tarte horretan taldeak hartzen duen eremua herrikoa izatetik eskualdekoa izatera pasa da. Herri, auzo edo beste edozein festa edo ekintzatan ikusi dugu informazio edo material-salmentako mahairen bat; bai, ezin da ukatu taldeak funtzionatu duela.

Aspaldian, prentsa, irrati eta bestelako hedabideetan ere ikusten hasiak ginen *Ebro-E* edo *Gran Enara* bezalako egitasmoak, baina inork ez genekien askorik; Arabako Errioxa ia osorik hartzen zutela proiektuek baina beste ezer ez. Petrolioak agortzen ari dela aspaldian ari zaizkigu esaten, baita energia-iturri berriztagarriek ez dutela espero zena eman ere –benetan esan nahi dutena da ezin diotela diru gehiago atera energia mota horri–; horren aurrean, energia-iturri berri bila, fracking-a proposatzen dute batzuek; proposamen horietako bi dira aipaturiko *Ebro-E* eta *Gran Enara*.

Lezako bi ahizpak frackingari buruzko liburuak irakurri eta harrিতuta eta larrিতuta geratu ziren: hori egin nahi zuten Arabako Errioxan? Berehala bilera bat antolatu zuten herrian, eta hantxe bertan erabaki zuten taldea sortzea. Geroago, hitzaldi bat ere antolatu zuten frackingaren aurka aspaldian lanean diharduen Mikel Oterorekin; handik aurrera herri gehiagotako jendea biltzen hasi zen taldean, eta izen aldaketa etorri zen. Taldean Arabako Errioxako herri gehienetako jendeak parte hartzeaz gain, badu beste berezitasun bat ere: parte-hartzaileen adina; izan ere, gazteenak 15 inguru izango ditu eta helduenak 80 inguru. Harrigarria egiten bada ere hainbeste herri elkartzea eta hain adin tarte handiko pertsonak elkartzea, egoeraren larriak ongi azaltzen du.

Arabako Errioxan frackinga egingo balitz, nekazaritza eta abeltzaintza desagertu egingo lirake. Frackinga lur azpian dagoen gasa erauztea da; hau da, lurtean zuloak edo putzuak egin eta metanoa atera. Kontua da horretarako azalera handiko plataformak eraikitzen dituztela. Plataforma horietako bakoitzak lautik bederatzita putzu bitartean izaten ditu, inoiz ez gutxiago. Putzu bakoitzak 1,5 edo 2 hektarea hartzen ditu zabaleran, eta sakonera 8 kilometrokoa ere izan liteke. Lur azpiko haitzetatik gasa ateratzeko putzu horietan ura, area eta zenbait produktu kimiko dituen nahasketa bat injektatzen edo txertatzen da arroaren geruza batean. Putzu bakoitzean, 30.000 litro ur behar dira, eta ur horri erantzen zaizkion produktuen artean 8k minbizia

eragiten dute, beste 5ek ernalkuntza-aparatuetan eragiten dute... 17 ur-espezie desagertzeko zorian utziko lituzke frackingak, eta edaten dugun ura ere kutsatuko luke, produktu kimiko horiek lurtean eta akuiferoetan geratzen baitira. Noski, kutsadura ez da hor amaitzen; izan ere, garraiatu behar da ateratakoa, eta, horretarako, putzu bakoitzeko 5000 kamioi inguru behar izaten dira; hortaz, zarata, kea...

Aurreko paragrafoan aipaturikoak aintzat hartuta, nor ausart daiteke horrelako proiektu bat gure lurtean proposatzera? Nekazaritza eta turismoa dira gure lurteak dituen diru-iturriak; ardoa ekoizteari utzita, nondik bizi? Frackingak diru asko utziko omen du hemen; bai, baina





## Tiki-taka 2015

nekazaritza eta turismoa baztertu ahal izateko adina? Gure lurretan dagoen metanoak ere amaiera izango du, gero zer? Gainera, frackinga kontu berria da, baina bada eskarmentua zenbait herrialdetan, esaterako, Ameriketako Estatu Batuetan urteak dira zenbait estatutan egiten dela, eta hasi dira debekatzen; Illinois-en lurrikara sortu izanaren erantzule egin zuten frackinga. European bertan ere debekatuta dago Frantzia, Italian, Bulgarian... baina Espainia, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua ere aldeko agertu dira. Bai, ondo irakurri duzue Eusko jaurlaritza. Alde batetik, Unesco-ri eskatu dio Arabako Errioxa Gizateriaren edo Munduko Ondare izendatzeko, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren menpeko Euskadiko Hidrokarburo Sozietate Anonimoa Arabako Errioxa ia guztiz hartuko lukeen fracking egitasmoa onartzeko eskatzen ari da: nola ulertzen da hau? *Gran Enara* proiektuak Kripan edo beste herriren bat utziko luke libre, baina gainontzeko guztiak hartuko lituzke, eta *Ebro-E* proiektuak 100.000 hektarea hartuko lituzke, hau da, Arabako Errioxa ia osoa.


Ez, Arabako Errioxan ez dugu nahi halako egitasmorik, eta horri aurre egiteko elkartu dira gazte, heldu eta zahar; frackingari aurre egiteko ibili dira herriz herri balkoietako ikurrak banatu, kamisetak saldu, eta abarretan; proiektu handi-mandi horiei aurre egiteko dabilta herriz herri udaletxeetan mozioak sartzen; aurre egiteko jaso eta aurkeztu zituzten Legebiltzarrean 103.000 sinadura...

Entzuna dugu gas-erazketa horietan istripuak izandakoan enpresek herritarrak “konpentsatu” edo saritu dituztela: AEB-etan pizzak oparitu omen zizkieten kaltetuei, beste lekuren batean sukaldeak... Ez, ez dugu enpresen eta gobernuen oparirik nahi, Ama Lurrak emandakoa ez dugu galdu nahi.



## Biodantza, Euskara Ikasteko Lagungarri?

**A**zken urteotan asko aldatu da helduen euskara-ikastaroetako giroa, Arabako Errioxan, behinik behin; gaur egun, askozaz hotzagoa da. Batetik, ikasleen helburua tituluren bat eskuratzea da, eta, badakite, halaber, nola ikasi xedea lortzeko: bakarka egin nahi dute lan, eta irakasleak bakarrik zuzendu behar ditu haien idazlan eta gainontzeko lanak; taldetxoetan edo binaka lan egiteko ohiturarik ez dute, eta horrela jarduteari ez diote zentzurik ikusten; materialak ere azterketetakoak erabiltzeko eskatzen digute... Horrenbestez, jolasak bazterrean utzi ditugu. Bestetik, taldeko afari eta irteerek ere tarte gutxi dute lehengo aldean. Eta, azkenik, euskaltegiak ere gero eta ekintza gutxiago antolatzen du ikasleak elkartzeko, eta egindakoak jende gutxirekin.



Giro hotz horrek eragina du talde-kohesioan, noski, eta talde-sentimendu eskaseko ikastaldeak askok uste baino gabezia gehiago ditu: larrimina edo antsietatea areagotu egiten zaio ikasleari, ez du bere gaitasunean sinesmenik, elkarrenganako konfiantza ezak eta gutxiago izatearen sentipenak ezertan ez arriskatzera eramaten dute, taldeko helburu eta arauak ez dira errespetatzen eta ikaslearen motibazioak behera egiten du, besteak beste.

Zenbaiten ustez, ez da bigarren hizkuntzako (H2) irakaslearen lana ez ikasleen motibazioa, ez autonomia lantzea, eta, are gutxiago, talde-dinamika. Gure euskaltegian bestela uste dugulako, azterketetatik eta curriculumetik urrun, talde-dinamika indartu nahi izan dugu, talde-esperientzia bitxi bat biziarazita. Horretarako biodantzarekin proba bat egitea pentsatu genuen.

Rolando Torok, biodantzaren sortzaileak, zioen pertsonak elkarrengana biltzearen poetika zela bere teknika. Praktikan parte-hartzaileari emozio jakin batzuk biziarazten dizkio, musika, dantza eta zenbait mugimendu lagun. Bizipen horietako batzuek gorputzaren kontzientzia handitzen eta identitatea indartzen laguntzen dute; modu horretan, autoestimua, umorea eta euforia suspertzen dira. Beste bizipen batzuek, berriz, bestearekiko enpatia eta

## Tfiki-ffaka 2015

errealitatearen kontzientzia hartzen laguntzen dute. Hortaz, alde batetik, adimen afektiboa areagotzen da, besteekiko harremanak hobetzen dira, alegia. Eta, bestetik, unibertsoaren handitasunean dugun lekua ikustarazten laguntzen dute, eta, hartara, barne-bake sentsazioa sendotu eta larrimina gutxitu.

Horrela bada, goi-mailako talde batean, EGA titulua lortzea helburu duen talde batean, lau biodantza-saio egin ditugu. Saio horietan elkar besarkatu eta laztandu dute, bata nekazaria eta bestea hazia izan dira, elkarrekin dantza egin dute, elkarri dantzak opari egin dizkiote... Azken batean, jolas eta barre ugari egin dute elkarrekin, taldean. Ikasleen balorazioak oso onak izan dira: elkar hobeto ezagutzeko balio izan omen die biodantzak, ikasgelako giroa asko piztu da, umore handiago dago taldean, erlaxatu denik ere bada...

Bai, ondo pasatu dute ikasleek, eta geuk ere oso aberasgarritzat jo dugu esperientzia; izan ere, biodantza-saioen ondoren hobekuntza ugari nabaritu ditugu. Ikasleek sendotu egin dituzte taldearen helburuekiko eta arauiekiko konpromisoak, konparazio batera, portfolioa osatzeko karpeta berdina erosi dituzte. Halaber, norberaren beharrei eta hutsuneei aurre egiteko gogo nabarmen areagotu zaie; bi ikasle, esaterako, eskola-orduz kanpo geratu dira zenbait ariketa berrikusteko. Orain, saio horien ondoren, elkar hobeto ezagutzen dute eta elkarrenganako konfiantza handiagoa dute; hortaz, askoz hobeto ari dira lanean binaka zein taldetxoetan; nolabait esateko, jolaserako gogo dute lehen ez bezala. Eskola ematen hasi ginenetik afari-proposamenik ez zuen inork egin; lau saio horien amaierako astean bazkari bat eta hamaiketako bat antolatuak zituzten. Bai, biodantza-saioek onura nabarmenak ekarri dizkiote taldeari.

Jolasak beti izan du tokia helduentzako euskara-eskoletan. Ez dezagun ahantzi: nahiz eta talde-ordu gutxiago ezarri curriculum berriak eta nahiz eta ikasleak hasieran dakarren xedearrekin loturarik ez ikusi, merezi dute jolasak eta elkarreraginak lekua gure eskoletan. Biodantza baliteke izotza apurtzeko jolasetarako aproposena ez izatea, baina, geroago, oso baliagarria da, elkarreraginerako gogo piztu eta sendotzen baitu, kasu. Itxi ditzagun liburuak, bada, eskola-ordu gutxi batzuetan, eta ireki biodantzari ikasgela.



## 2015eko Eskolarteko Pilota Topaketak Arabar Errioxan

«Euskal pilota euskaldunon nortasuna adierazteko beste baliabide bat dugu. Hots, kirola, hikuntza, ohiturak belaunaldiz belaunaldi eta tradizioz zein familiaz familia transmititzen diren balioak, herri baten partaide garen kontzientzia sortzen diguten ezaugarriak dira.

**Gu ez gara besterik gabe garelako, gu izan direlako gara!**

Kirola herri kulturaren azpimultzo bat da eta kirolaren sustrai kulturala berreskuratzeko herriaren jolas eta jokoek izan duten bilakaera ezagutu beharra dago.

Elkarrekin ondo pasatzeko, giza harremanez gozatzeko eta bizitzaren gogortasuna, trebetasuna, maltzurkeria era atsegin batean adierazteko adierazpena dugu kirola eta nola ez, Euskal pilota.

Gaur egun kirolaz hitz egiterakoan Euskal jolas eta jokoen dimentsioari arreta jartzen ez badiogu, kirolaren zentzu mugatu batean eror gaitezke non futbolak, atletismoak eta beste hainbat kirolek trataera berdina izango duten, bai Euskal herrian, bai munduko beste herrietan.

Euskal pilotak ere urte luzez bilakaera izan du. Hasiara batean soroetan egiten zein bi taldeko “bekoz-beko” jokoak. Pixkanaka atzealdeko elementu naturalak baliatuz, pilota horma baten aurka jotzeko joko bihurtu zen, eta hortik aurrera “plekako” jokamolde gisa ezagutu dugu; aurkariak joko espazio berean elkarren ondoan, aurrez aurre izan ordez, tantoa ez galtzeko, pilota frontisera behetik eta goitik mugatutako gunean kokatuz aurkaria iritsiko ez den gunera bideratuko da kolpeka.»<sup>1</sup>

Hau horrela, Arabar Errioxan pilota entrenamentuak Euskara bultzatuz egiten dituzten herrien arteko topaketa jardunaldiak burutu dira.

Arabar Errioxako pilota eskolek norbere herrian eta apiriletik ekaina bitartean 4 topaketa antolatu dituzte pilotari erreferente euskaldunen elkarlanaz adin eta jokamolde ezberdinetan gaztetxoenen partaidetza eta partidak burutuz.

Pilotan jolasteko erabiltzen diren eta eskuetan jartzen diren takoen tailerra, esku pilotak egiteko taillerrak, txikientzako pilota jokoak eta herri arteko harremana sendotzeko balio izan duten jarduerak izan dira.



<sup>1</sup> Eskupilotaren-ikaskuntza-irakaskuntza-prozesua gidaliburutik ateratako paragrafoa.

## Txiki-txaka 2015

### 2015eko topaketa hauetarako elkarturiko pilota elkarteak, mailak eta pilotariak

	TXIKIAK jolasak	hastapena	etorkizunekoak	kadeteak	PALA hastapena	PALA txikiak	PALA kadeteak	
OION		4	2	3	-	1	1	11
BASTIDA		2	4	1	1(5)			8
EKORA	8	3	2	-	-	-	-	13
LAGUARDIA	4	-	3	-	-	-	-	7
	12	9	11	4	1(5)	1	1	39

#### topaketen egutegia

- 1go Jardunaldia – OION: igandea, apirilak 19, 10:00etan
- 2. Jardunaldia – BASTIDA: igandea, maiatzak 10,10:00etan
- 3. Jardunaldia – IEKORA: igandea, maiatzak 24, 10:30ean
- 4. Jardunaldia – BIASTERI: igandea, ekainak 7,10:00eTan

Giro jatorrean amaitu zen jardunaldia eta etorkizuneko pilotari gaztetxoek nahiz gurasoek elkarrenganako kiroltasunez banatu zituzten otarteko goxo eta freskagarriak, berriro ere pilotan elkarrenganako norgeiagokan irabazi ahal izateko.

Arabako pilota federazioak, Arabar Errioxako koadrilak eta Oion, Laguardia, Bastida eta Ekorako pilota elkarteek ere euskeraren erabilpenari tanto polita egin diote aurtengoan jardunaldiak bultzatuz, baina partida hasi besterik ez da egin, eta lan asko egin behar da 22ra iristeko.

Hala zioen Ekorako Eskide Pilota Elkartekide den “Axio”-k:

*“... hemen dago gure harrobia eta lehenaren jarraikortasuna. Bizitza osoan ezagutu dugu pilotariren bat Ekoran, eta lanean jarraitu behar dugu harririk eten ez dadin euskaldunon kulturak, hizkuntzak eta ohiturek errotuta jarraituko badute ”*

Aurkariak hutsik egiten ez duen bitartean etxean, kalean, kirolean eta familian euskaraz aritu behar garela ikusi dugu

Hala ta guzti «sotamanoz» eginiko tantuarekin...

Euskarak lortu du garaipena markagailuan alde handia lortuz, entrenamentu eta motibazio handiz agertu baita Arabar Errioxako pilotalekuetan.



**Izena:** Joxerra Olano Etxabe • **Jaioteguna:** 1962ko irailaren 4a • **Herria:** Azkoitia  
• **Lanbidea:** Barañaingo Sahats euskaltegian irakasle • **Bizitokia:** Iruñea



#### **Zertan ari zara orain? Non?**

IKAko euskaltegi batean ari naiz lanean, Barañaingo Sahats euskaltegian, hain zuzen ere. 28 urte dira langintza honetan hasi nintzela, eta azken 22 urte hauetan euskaltegi horretan ari naiz eskolak ematen.

#### **Zein egoera bizi duzue euskaltegiak Nafarroan?**

Urte latzak ari gara pasatzen. Garairik hoberenetan ere gure egoera ez zen xamurra izaten, baina 2000. urteaz geroztik, Nafarroako Gobernuak, UPNren gobernuak, alegia, hizkuntza politika gogortu egin du. Politika horren barneko atal bat izan da helduen alfabetatzearen eta euskalduntzearen kontrako erasoaldia. Egia da inoiz ez dugula izan gobernuaren babes handirik, ez dirutan, ez bestelakoetan; baina azken urte hauetan gobernuak gure alorrean hartu dituen erabaki politikoei erreparatzen badiegu, lasai esan dezakegu Francoren garaian baino okerrago gaudela. Izan ere, garai hartako diputazioak diruz laguntzen zuen Iruñeko Arturo Campion euskaltegia, Euskal Herriko lehenengo euskaltegia. Guk, ordea, 2012ko urrian jaso genuen azkenengoz gobernuaren diru-laguntza, nahiz eta gobernuaren aurrekontuetan horretarako kontu-saila hor izan den 2013an,

2014an eta 2015ean; baina laguntza horiek banatzeko deialdirik ez egitea erabaki zuen UPNk. Horrek Nafarroako IKAk azken hiru urte hauetan jaso behar zituen 300.000€ inguru ez jasotzea ekarri du. Hori aski ez dela, gobernuak zuzenean kudeatzen dituen bi euskaltegiak Iruñerriko AEK-ko eta IKAko euskaltegietan eskaintzen dugun ikastaro mota bertsua eskaintzen hasi dira, baina bertara joaten direnek gure euskaltegietan baino 5 aldiz gutxiago ordaindu behar izaten dute. Hala ere, ikasle kopuruari eutsi egin diogu azken hiru ikasturte hauetan, harrigarria bada ere. Larri bagabiltza ere, UPNk ez du oraindik lortu gure euskaltegiak itotzea, zorionez.

#### **Nola egiten diozue aurre?**

Herritarren babesari eta irakasleon konpromisoari esker. Lan kondizioak gogortu egin behar izan ditugu, lehengoaz gain, soldatei eta abarrei dagokienez; dirua biltzeko kanpainak ere egin ditugu- *Milaka argi Nafarroan*-, hilerok dirua ematen digutenen sarea zabaltzen ari gara, eta, azkenik, dirua lortzeko betidanik erabili izan ditugun beste hainbat bide indartu ditugu, itzulpengintza, zozketak, txosnak...

Hori alor ekonomikoan. Bestalde, helduen euskalduntzearen egoera negargarria salatzen segitu dugu, eta, bide batez, gobernuaren hizkuntza politika itxuragabeari aurre egiten Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko beste bazkide batzuekin batera. Azkenik, horretarako aukera dagoen herri eta eskualdeetan, bertako udalekin eta mankomunitateekin elkarlana indartzen saiatu gara, gobernuaren hizkuntza politikaren eragina arintze aldera: erabilera planak bultzatu ditugu, euskara ikasteko beka-sistemak abian jarri, euskarazko kultur eskaintza sendotu ...

#### **Zein erronka edo lehenetsun dituzue orain?**

Guk betiko bidean urratsak egiten segituko dugu aurrerantzean ere: herritarrak

euskalduntzen, erabilera bultzatzen eta instituzioen hizkuntza politiketan eragiten. Haize kontra edo alde, errazago edo nekezago, arinago edo motelago, horretan ariko gara, herritarren babesa dugun bitartean.

## **Kontseiluko zuzendaritzan parte hartzen duzu; zein lehentasun duzue hor? Zer jorratzen ari zarete orain?**

Bai, IKArek ordezkarria izan nintzen 2000tik 2004ra bitartean zuzendaritza horretan, eta berriz ere horretan dihardut 2011tik aurrera. Ez da erraza Kontseiluan zertan ari garen labor-labor azaltzea. Kontseiluak Euskal Herriko euskaltegi gehientsuenak, ikastola guztiak, komunikabide asko, euskara elkarteak eta era askotako taldeak biltzen ditu. Bizitzaren alor guztietan euskara nagusi izatea dugu helburu, euskaraz bizitzea, alegia. Eta hainbat egitasmo lantzen ditugu elkarrekin, hainbat tresna sortu ditugu: *Bai euskarari* ziurtagiria, Hizkuntza eskubideen Behatokia, udalen hizkuntza politiken neurketak ...

Gaur egunean, kontsumoaren alorrean, euskarazko hezkuntzarenean eta udaletako hizkuntza politiketan ari gara ahalegin handiena egiten. Dena dela, hamaika dira lantzen ari garen egitasmoak, eta unean uneko egoerari aurre egiteko antolatzen ditugun mobilizazio handiak ere hor daude, esaterako, Donostian otsailaren 28an egin genuen manifestazioa eta apirilaren 25eko ekitaldia Iruñeko Anaitasunan.

## **Zenbat urte egin dituzu Arabako Errioxan? Zertan?**

Sei urte egin nituen Arabako Errioxan helduei euskara irakasten, 1986tik 1992a arte.

## **Hemen pasatako denboran zer izan zen gehien bete zintuena?**

Bertako jende askok euskara ikasteko egin zuen ahaleginak, euskaraz hitzik ere ez zekiten askorekin euskaraz hitz egin ahal izateak urte batzuen buruan. Oso oroitzapen onak ditut, egindako lana berehala nabarmentzen baitzen garai hartan; izan ere, helduen artean euskaldun gutxi zegoen artean. Gainera, bertakoekin oso harreman estua genuen euskaltegiko irakasleok eta adiskide min asko dut bertan. Askok ikasi nuen bertakoengandik. Bizipozez betetako urte ederrak izan ziren.

## **Eta gehien erre zintuena?**

Ez ginen erretzen errazak langintza horretan genbiltzanak, nahiz eta egoera gogorrak ere igarotzea egokitu, euskaltegia diruz oso gaizki ibiltzen zelako batez ere. Baina euskaltegian euskara maila polita lortutako bat baino gehiago handik urte batzuetara euskaraz moldatu ezinik entzutea zen gogorrena. Euskaraz egiteko aukera gutxi izaten zuten zenbait euskaldunek, eta erabili ezean kamusten den tresna bakarra hizkuntza dela esaten dute. Zulatutako zorroa betetzen saiatzen aritze horrek kezkatzen gintuen. Kezka horrek bultzatu gintuen, hain zuzen ere Ttiki-ttaka sortzeko urratsak egitera, Arabako Errioxako euskaldunak elkarrengana bildu eta euskaraz egiteko ordura arte baino aukera handiagoa izan zezaten.

## **Arabako Errioxara etorri zinenean zer lortzea espero zenuen? Zer lortu da? Eta zerk huts egin du?**

Eskualdean euskarak aurrera egitea, jendea euskalduntzea, euskal kultura zabaltzea, euskararen aldeko jarrera sendotzea, euskararen kontrakoa ahultzea, euskararen erabilera handitzea, inoren morroi ez den herri mugimendua osatzea, bertako instituzioak euskararen aldeko lanean inplikatzeko... Aipatu ditudan guztiak lortu dituzue edo lortzen ari zarete, eta, egia esan, neure eskasean, jende askoren ahalegin horretan parte hartu izanak harrotasun puntu bat ematen dit.

Adar iharririk gabeko zuhaitzik ez dela dio esaera zaharrak, eta Arabako Errioxako euskalduntze prozesuak ere adar iharren bat izango du, jakina, gauzak hobeto egiterik izango genuen, noski. Dena dela, oro har, eredu garria iruditzen zait Arabako Errioxan egin den bidea, eta ez dut uste Euskal Herrian euskalduntze prozesu bizkorragorik izan denik beste inon, euskararen ezagutza zabaltzeari dagokionez. Horretan parte hartu duten guztiek, eta batez ere heldutan euskara ikasi duten guztiek, harro egoteko moduan daudela iruditzen zait.

## **Azkenaldian, behin eta berriro ari gara entzuten euskara salbatuko bada, dakitenek erabili behar dutela. Ados al zaude? Arabako Errioxan jende gehiagok ikastea lehenetsiko zenuke? Biak?**

Leheneste kontu hori arriskutsua izaten da askotan, lehenesten ez diren horiek bazterrean uzteko aitzakia izaten da eta. IKA izenak berak erakusten du biak elkarri lotuak

ikusten ditugula, *Euskaraz ikas eta ari* esloganetik baitator gure koordinakundearen izena. Itsuenak ere ikusiko du Arabar Errioxan biak ditugula ezinbesteko. Nekez egingo du aurrera erabilerak jende gehiago euskaldundu ezean, eta nekez eutsiko dio euskaldunak bere euskara mailari erabiltzeko aukerarik ez badu.

Bestalde, badira azkenaldian zabaltzen ari diren zenbait ideia kezagarri. Horietako bat erabileraren ingurukoa da, Nafarroa Garaian ere hizkuntza politikan ardura duten karguen ahotik entzun behar izan duguna, eta baita EAEko zenbait karguren hitzetan ere. Euskara erabiltzearen garrantzia ozen aldarrikatzen dute aipatu politikariek, hemen inork inoiz kontrakoa esan izan balu bezala: erabilera lehenetsi behar dela, “euskararen paradoxa” aipatzen digute, erabilera ez dela ezagutzaren parekoa, alegia - nagusi ez den edozein hizkuntzatan gertatzen dena, euskaldunon axolagabekeriagatik gertatuko balitz bezala. Orain dela gutxi Nafarroako PPko parlamentari bati ere hala entzun genion: “Ikasi ikasten dute euskara, baina badirudi gero ez dutela erabiltzen”. Hala bota zuen Amaia Zarranzek poza ezkutatu ezinik Nafarroako parlamentuan. Nire ustez, tentuz erabili beharreko diskurtsoa da hori, bai baitirudi herritar euskaldunarena dela euskararen erabilera euskaltzale guztiok nahi baino apalagoa izatearen errua. Ondo dago esatea nonahi eta noiznahi euskaraz egiten saiatu behar dugula, baina euskaraz mintzatu ahal izateko bideak jarri behar dira, eta horretan arduradun politikoez badute zer egina. Gainerakoan, pentsa genezake alderdi politikoez izendatutako arduradun horiek beren burua zuzitzen saiatzen direla diskurtso horren bidez; nik nahi bezain ausarta ez den hizkuntza politika zuzitzen, EAEn, eta euskararen kontrako politika gordina mozorrotzen, Nafarroan.

*Inposizioaz eta kontsentsuaz* ere bi hitz baino ez. Onuragarria den hori, mesedegarria den hori, desiragarria den hori ezartzea ez dugu inposiziotzat hartzen. Inori ez diot inoiz entzun esaten Karibe aldean hamabost eguneko oporraldia inposatu diotela. Euskara ikastea ez al da onuragarria, mesedegarria eta desiragarria? Edo kaltegarria da? Gaitz kutsakorra, Nafarroan pairatu dugun gobernuak uste duen bezala?

Kontsentsua ere gauza ederra da, bai horixe! Baina hemen gauza asko inolako kontsentsurik gabe erabaki izan dituzte politikariek, gehiengo zutela argudiatuta.

Gainera, euskararen kontu honetan, euskararen aldeko neurriak txepelduta bilatu behar izaten da kontsentsua, euskaltzalea erdaldunaren iritzietara makurtuta, alegia. Kontsentsu xelebrea da hori inondik ere.

**Zer esango zenuke baieztapen hauen aurrean: “Nik ez dut ikasiko euskara, politizatuta baitago”. Politikoa: “Asko egiten dugu euskararen alde, gertatzen dena da batzuek beti gehiago nahi izaten dutela”.**

Bigarrenari helduko diot aurrena, politikariari. Baietz esango nioke, batzuek beti gehiago nahi izaten dugula eta hori esaten segituko dugula gure herrian gure hizkuntzan bizitzerik ez dugun bitartean. Izan ere, ez gara ari bidezkoa ez den ezer eskatzen.

Lehenengoari, berriz, galdetuko nioke zertaz ari den euskara *politizatu* dagoela dioenean. Hori esatea eta ezer ez esatea dena bat delako, nire iritziz. Euskalduna euskaraz egiteagatik pentsamolde politiko jakin batekoa dela esan nahi badu, hori gezurra dela esango nioke; euskara nagusi den edozein herritako zortzi urteko edozein umek ondotxo dakien bezala, pentsamolde politiko guztietako euskaldunak daude eta. Gainera, hori dioenari galdetuko nioke gauza bera egiten duen gainerako hizkuntzetako hiztunekin, ea gaztelaniaz edo alemanez hitz egiten duenari zer pentsamolde lotzen dion. Besterik da hemen euskararen aldeko lanean zenbait pentsaera politikotako oso jende gutxi ibili izana. Gutxi edo batere ez. Besterik da hemen alderdi politiko batzuek euskara zabaltzearen kontra jardun izana, zenbat eta euskaldun gehiago izan, orduan eta boto gutxiago lortuko zutela uste zutelako, edo euskara desagerraraztea helburu zutelako. Besterik da hainbat alderdik eta erakunde politikok euskararen aldeko mugimendua haien esanetara jarri nahi izana, beste herri mugimendu guztietan gertatu den moduan, bestalde. Tira, luze ari gintezke euskararen *politizazioaz*, eta gustuko gaia dudala aitortzen dut.

**Zer esango zenioke Arabako Errioxan euskaraz ez dakien bati.**

Euskaltegira lehenbailehen etortzeko eta euskara ikasteko. Jakin-min hutsagatik, bertako askok hitz egiten duten hizkuntza ikasteko, gure kultura sakonago ezagutzeko, euskarazko kultur produkzioa eskura izateko,

## Tiki-taka 2015

lanpostu hobea lortzeko, jakitea ez jakitea baino hobea delako, jende berria ezagutzeko, ongi pasatzeko... Horietako guztiak, batzuk edo beste batzuk esango nizkioke; betiere, nor den ikusita. Euskara ikastea merezi duela erakusten saiatuko nintzateke. Gainera, askotan, euskara ikasteko hasierako motiboa edozein izanda ere, euskaltegian zaletu egiten da ikaslea, euskal hiztun aktiboa bihurtzen da,

aldatu egiten da. Horretan saiatzen gara behintzat.

### Inoiz euskara hutsez bizitzerik izango ote dugu?

Bai, ez izan dudarik, lehenago edo geroago gure herrian gure hizkuntzan bizi ahal izango gara. Euskal Herri osoan euskara nagusi izango da.



# denborapasak

## txisteak

Ume bat arduratuta heltzen da etxera eta amari esaten dio:

- Ama! Ama! Eskolan oso despitatua naizela esaten dute.
- Ez egin kasurik eta egon zaitetz lasai! Baina, barkatu, ni ez naiz zure ama, zure auzokoa naiz.



Maisuak Jaimitori galdetu zion:

- Zenbat dira bi eta bi?
- Auskalo, bestelako daturik ematen ez badidazu...

- Etxeko andrea etxean al da?
- Ez, ez dago etxean, kanpoan da.
- Eta noiz etorriko da?
- Itxoin, oraintxe galdetuko diot.



Txinatar batek zera esan zion gizon bati:

- Aizu, kotxe hori berria al da?
- Bai, Alfa bat da.
- Lomeo?
- Pixa egiten badiozu, belarrondoko bat emango dizut!



Patxiku bere ikaskide batekin:

- Alazne, zu non jaio zinen?
- Ni gurasoen etxean. Eta zu?
- Ni? Ospitalean.
- Zer dela eta? Gaixorik zeunden ala?

Zer esaten du E.T.k limoia jandakoan?

6.Nola esaten da "maquillajea" euskaraz?  
Harry Potter






Mikaaatzaaa



# Gurutzegrama

Kokatu Euskal Herriko ondoko mendi izenak:

AUÑAMENDI, GORBEIA, AIZKORRI, PALOMARES, ANBOTO, ARLAS, JOAR, OLLATE, JAIZKIBEL, LEKANDA.



# Hizki Zopa

Bila itzazu ondoko izenak:

**ORDUNTE, OITZ, IZARRAITZ, SALBADA, ANBOTO, ERNIO, ARALAR, ARKAMO, BADAIA, ELGEA, AIZKORRI, URBASA, TOLOÑO, ABODI, LOKIZ, KANTAURI, ANDIA, KODES**

O	R	D	U	N	T	E	L	A	C	D	S	I	J	U	R	B	A	S	A	H	R	M	I
I	N	M	R	E	S	A	B	O	D	I	F	A	X	B	X	K	W	I	N	U	R	S	J
T	Z	E	O	T	V	B	E	E	W	R	T	Y	L	U	I	I	K	O	D	E	S	G	H
Z	S	D	F	J	K	A	R	R	L	A	R	L	Z	B	X	B	N	M	I	Q	W	E	R
T	Y	U	I	O	P	A	N	N	S	D	F	G	H	J	A	K	L	Ñ	A	Z	X	C	V
Z	T	I	A	R	R	A	Z	I	K	O	L	B	N	D	N	D	M	Q	E	W	R	T	Y
U	I	O	P	S	A	D	O	O	F	G	H	J	A	K	L	Ñ	A	S	D	F	G	H	J
K	L	Ñ	Z	X	C	V	B	N	M	Q	W	I	E	R	T	Y	U	H	I	O	P	A	S
D	F	G	H	J	K	L	Z	Ñ	X	C	A	V	B	N	M	Q	W	E	R	T	Y	U	I
O	P	A	S	D	F	G	H	J	K	L	Ñ	Z	X	C	V	B	N	M	Q	W	E	R	T
U	Y	I	O	P	A	S	D	F	G	H	J	K	Ñ	L	Z	X	C	V	B	N	M	Q	W
E	R	T	Y	U	I	O	P	A	S	D	F	G	H	J	Ñ	K	L	Z	X	C	V	N	B
P	M	O	I	Y	T	T	Y	E	R	W	Q	A	S	D	F	G	H	J	K	L	Ñ	M	N
B	V	X	Z	C	A	S	D	F	G	H	J	I	R	R	O	K	Z	I	A	K	L	P	O
I	U	Y	T	R	E	A	W	Q	D	S	F	G	H	J	K	L	Ñ	M	E	N	B	V	X
C	Z	S	Q	C	Z	D	F	R	T	G	V	N	J	I	L	Ñ	O	M	G	E	Q	W	E
R	T	Y	U	I	O	A	O	S	D	F	O	G	H	J	K	L	Ñ	M	L	N	B	V	C
X	Z	A	B	C	Ñ	T	D	E	F	G	H	M	I	J	K	L	M	N	E	Ñ	O	P	Q
R	S	T	U	V	O	W	Y	Z	M	N	P	O	A	Ñ	L	A	S	E	R	I	U	K	J
D	F	C	V	B	L	B	N	W	S	X	F	T	H	K	A	N	T	A	U	R	I	N	J
I	L	P	N	I	O	U	H	V	E	F	S	W	D	V	R	G	J	Y	M	K	O	Ñ	P
U	H	A	V	F	T	G	R	T	E	W	S	Q	C	H	E	A	N	E	R	Y	H	A	K



# euskara zainduz



JOLASTU edo JOKATU.  
zein da zuzena?  
biak al dira zuzenak?

Askotan egiten ditugu akatsak *jolastu* eta *jokatu* hitzen artean nahasten garelako. Noiz erabiltzen da bata? Noiz bestea? Ba al dago araurik bataren eta bestearen arteko hautua egiteko? Bai! Badakugu azalpen erraza zein erabili behar dugun jakiteko.

Hasteko, *jokatu* eta *jolastu* hitzen erabilera okerrak eta zuzenak nahasirik jarriko ditugu. Ea asmatzen duzun zein diren zuzenak eta zein okerrak!

Pilotariak partida ederra *jolastu* zuten. ★★

*Jolastu*ko al gara kaniketara? ★★

Futbolean *jolastu* dugu herriko futbol zelaian. ★★

Loteriara *jolastu* dut eta seguruenez tokatuko zait. ★★

Futbolean *jokatuko* dugu arratsaldean. ★★

Panpinekin *jolasean* ibili naiz. ★★



## Noiz erabili behar dugu *jolastu* eta noiz *jokatu*?

*Jokatu* erabiliko dugu zerbait irabazteko edo galtzeko dagoenean eta ez badago ezer jokoan eta *jolasean* ez badago galtzailerik edo irabazlerik *jolastu* erabili beharko dugu.

Honen inguruko informazio gehiago nahi baduzue, honako link honetan topatuko duzue.

<https://www.youtube.com/watch?v=ss4xNF8ldgI>

# non gogoia, han zangoa



# Tfiki-tfaka 2015






# Tfiki-ffaka 2015





# Tfiki-ffaka 2015





tiki  
taka



*Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera. Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri. **Egin zaitez bazkide!***

Deiturak \_\_\_\_\_ Izena \_\_\_\_\_

Jaioteguna \_\_\_\_\_ Helbidea \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_ Pta.Kodea \_\_\_\_\_ Tfnoa \_\_\_\_\_

Banku-Aurrezki kutxa \_\_\_\_\_ Sukurtsala \_\_\_\_\_

KK edo libreta zkia \_\_\_\_\_

Data \_\_\_\_\_

Sinadura